

GARRAIO EGOKITUKO ZERBITZUA (OHIKOAK EZ DIREN JARDUERETARAKO)

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Desgaitasuna duen pertsona heldua > Laguntza etxean eta/edo bizitza autonomoa izateko

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

Mugitzeko arazo larriak dituzten pertsonak

Kostua

Ordainketa partekatua behar duen zerbitzua, onuradunaren egoera ekonomikoaren eta baliabidearen erabileraren arabera.

Baldintzak

Mendekotasun larria mugikortasunerako.

Garraio publikoa erabiltzeko ezintasuna.

Erroldatzea.

Zertan datza?

Atez ateko garraio-zerbitzua, garraio publikoa erabiltzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat bideratua ([2.7.2.4](#)). Mugikortasunari laguntzeko produktuak (gurpil-aulkiak, esku-oheak, taka-takak eta beste) erabiltzen dituzten pertsonen beharretara egokitutako ibilgailuen bidez ematen da zerbitzua, eta garraio-sare publikoaren bidez egin ezingo lituzketen joan-etorriak egiteko aukera ematen die, ohikoak ez diren jarduerak egiteko joan-etorriak egin behar dituztenean.

Norentzat?

II. eta III. graduko mendekotasuna duten pertsonak, mugitzeko muga zorrotzak dituztenak, hau da, mendekotasun larria edo mendekotasun handia dutenak.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Zerbitzua koordainketaren mende egon daiteke, hau da, pertsonak zerbitzuaren zati bat ordaindu behar izan dezake bere diru-sarreraren eta erabilera-modalitatearen arabera.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

Mugikortasun arazoak eta **mendekotasun larria**.

Garraio publikoa erabiltzeko aukerarik ez izatea, ezta ibilgailu propio egokitua izatea ere eta, aldi berean, ohiko etxebizitzan eta ibilgailu partikularretan egokitzapenak egiteko **laguntza ekonomikoa** ez eskatzea.

Norberaren etxean bizitzea.

Aurreko 12 hilabeteetan **EAEn erroldatuta** egon izana.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

[Kontsultatu informazio osoa](#)